



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

594. zkia.
XIV. urtea
2006ko abenduaren 1a



Aterkings musika taldea

«Trabesti bihurtu gara New York Dolls taldea omentzeko»

2007^{ko} Gida Komertziala

Elgoibar eta Mendaro



- Diseinu berria.
- Dena koloretan.
- Mapak
- Autobus eta trenen ordutegia
- Farmazien egutegia

Informazioa:

943 74 37 04

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Eta 2007an www.elgoibarren.net web orrian jarriko dugu denon eskura.



Purrix eta Porrotx

Mari Motots

Aurreko astean argitaratutako iragarkian azaldutako informazioak sortu dituen gaizki-ulertuengatik barkamena eskatzen dizuegu.

Inguruan izango diren beste saioak:

- Abenduak 1 eta 2: Eibarren
- Abenduak 26: Azkoitian



Euskara
Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Eusko
Jaurilaritza



ALAIN ULAZIA

Begira hau Alaitz, garraioaren ekonomian adituak direnek uste dute ekonomia aurreratuan garraioak duen garrantzia gaintzeko jarduera arloetarako eraginkortasunean datzala, nazioaren errentaren hazkunderari dakarkionean baino.

Baskongadetako instituzioek onartu nahi ez duten ideia hau grafikoki islatuta agertzen da Batasunak "Garraioa Euskal Herrian" izenburupean, eta Trenbide Sozialerako Sarearekin elkarlanean, argitaratu duen txosten bikainean. Grafikoa argi ikusten da salgaien garraio intentsitate handiena duten estatuak ez direla merkataritzamultzo berean hazkunde tasarik altuenak dituztenak. Irlandari adibidez, gure garraio intentsitatearen laurdena nahikoa zaio gure barne produktu gordina berdintzeko.

Beste datu bat: baskongadetan eta Nafarroan, Europar Batasunarekin eta Amerikako Estatu Batuekin alderatuta, garraio azpiegiturretan luzoruzko proportzio bikoitza asfaltatu dugu jada. Hemengo autopista dentsitateak (68 km/ 100 m²) Alemaniakoa bikoiztu eta Frantziakoa hirukoizten du, adibidez. Eta orain, gainera, Abiadura Handiko Trena eta beste hainbat egitasmo txikitzaile egin nahi dituzte.

Harritzekoena zera da: aztama ekologikoaren teoriatik bekatu kapitala diren egitasmoak, teoria neoliberalen logikapean ere astakeria izatea. Orduan zergatik egin nahi dute Abiadura Handiko Trena? Eskupekoagatik?

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

«Zergatik egin nahi dute abiadura handiko trena?»

ALAIN

«Konturatu ordurako paper gaineko Y-a gurean»

ALAITZ

Lan zaila jarri didazu. Badira X urte paper gainean marraztutako Y-a existitzen dela. Ordutik hona informazio gutxi, oso gutxi, ia batere ez eta konturatu ordurako, paper gaineko Y-a gurean omen. Ezagutzen dut aipatutako txostena eta aztertu ditut zuk mahai gainean jarritako datuak. Zalantza datuok alderagarriak ote diren da (AEBtako eta Ehko dentsitatea hain desberdinak izanda)

Noan harira. Atsegin dut trena. Erosoa da, bere bidea egiten du, autoen itoguneetatik ihesi. Urteetan penaz begiratu izan diot gure heritik pasatzen den trenari. Apropos zahartzen utzi dutenaren susmoa izan dut, alboratuta, utzita, plastikozkoa, hotza, (ipurdia izozterainokoa)... tren modernoagoa noiz iritsiko zain. Eta badator. Ba omen dator.

Bailara barruko mugikortasuna erraztu behar genuke, martxan dugun tren zaharren maiztasuna ugaritu, bailara barruan ia "metroak" bezala funtzionatu dezan, hiriburuetara garraio bide zuzenak dituzten herrietara iristeko (gure kasuan, Eibar, Elgoibar). Zenbat aldiz gogoratzen ote dira Urolako tren zaharraz egunero Aizpurututik Zumarraga aldera lanera doazenak; nola erraztuko lukeen Zumacia aldeko industrialdeetarako joan etorria... Nahiz ta ni majo ibiltzen naizen bizikletan Urolako trenaren bidea eginez! Ta txikizioaz? Ruper Ordorikaren abestia dut ahoan. Nerekin abestu nahi? "ni ote naiz lur pusketa hau, bihotz begiekin dakusana; ongizatearen gorpila gelditu nahi duen nagia..."



PENA DA HERRIALDEA ERABILTZEN DAKITEN PERTSONA BAKARRAK TAXIAK GIDATZEN EDO ILEA MOZTEN LANPETUEGI EGOTEA



George Burns

Dagokionari:

Komunikabideek zein hainbat politikok igortzen dituzten mezuei erreparatuz gero, gure gizartean naturarekiko kezka handia nabari dela pentsa lezake edonork. Kyoto, garapen jasangarria, Agenda 21... eguneroko hizkuntzan ditugu bameratuak, ohikoak dira herritarren arteko elkarrizketetan eta eztabaidagai izaten dira unibertsitate, eskola, kafe edo txikiteoan. Baina gai honetan, beste hainbatetan bezala, mezu honen hipokresi kutsua berehala antzematen da. Ez da nire asmoa eztabaida honen putzu sakonean sartzea. Nire herrian gertatu dena kontatzea besterik ez dut nahi. Hausnarketak norberak egin ditzala.

Aurtengo abuztuko bigarren astean, herria zeharkatzen duen Deba ibaian, ehunka aingira hilik azaldu ziren. Eguerdirako hildako aingira mordo bat ikus zitezkeen erreka bazterretan. Jendearen amorrazioa nabaria zen: abuztuan geundela baliatzen direla, batek; azido gogorra bota behar izan dutela, besteak; urtero berdina, beste hark. Eta norbera ere amorratuta, iaz ez, baina duela bi urte "espektakulo" berdina edo antzekoa ikustea egokitu zitzaioelako. Orduan ere, ehunka aingira, kolore guztietako arrainak (bai, arrainak Elgoibarren!) hiltzen

ikusituen. Hiltzen diot, arrainen agonia bertatik bertara ikustea suertatu zitzaidalako.

Gertaera larria izanik, nire onetik ateratzen nauen gaiari eman zaion tratamendua izan da. Orain dela bi urte nik ez nuen lotu isuria nork egin zuen jakiterik, ezta inolako isunik jarri zitzaion egileari, baina norbait entzuna diot ez zutela jakin nondik etorri zen delako isuria (!!). Martxa honetan, aurten ere antzerako zerbait gertatuko dela iruditzen zait. Nire eskura iristen diren komunikabideetan apenas ezer azaldu da. Ez dakit zein den arrazoa: edo ez dago informaziorik, edo ez da bideratzen edo ez da interesatzen.

Iruditzen zait gai honetan norbait tranpa egiten ari dela. Isuriak abuztuan direnez, eta abuztuan herritar gutxi egoten denez, gaiak garrantzia galtzen duela dirudi. Isuri-egileak bentaja hortaz baliatu nahi du. Baina gertaera larri honen gainean egon behar luketenak (Aldundia, herriko komunikabideak, Udala...), jakitun edo ez, gauza bera egiten ari direnaren susmoa daukat. Nik uste dut abuztuan Elgoibarren egiten diren isurketak ez direla abuztuan Elgoibarren gauden hiritarren arazoa, guztiona baizik. Horrela baldin bada, eskubidea dugu

jakiteko zeinek egin dituen isurketak eta zein neurri hartu den berarekin, badin eta halakorik egon bada. Eta hau, ez mendeku gogoan daukagulako, baizik eta ez dugulako nahi 2007ko abuztuan, beste behin ere, ehunka, milaka arrain hilik ikusi erreka bazterrean.

P.M.

OHARRA

Konstituzioko jai-zubia dela-eta, datorren astean ez dugu BARRENik kaleratuko. Hurrengo alea abenduaren 15ean jasoko duzue.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzec: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitate: 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTURAZ ELKARTEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gumutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



TXALOAK



• Juan Mari Larrañagak Mendaroko herriari eta bertako herritarrei esker-rak eman nahi dizkie: "22 urte egin ditut Mendaron lanean eta esker-rak eman nahi dizkiot Mendarori eta mendarorrei nirekin eduki duten jarreragatik. Ondo egindakoak gogoan hartu eta gaizki egindakoak barkatzeko eskatu nahi diet. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko guztioi!".

• Txalo bat Gazteria Sailari joan zen asteko hitzaldiak antolatzeagatik: "Gurasoak nahiko kezkatuta gabiltza gure seme-alabekin eta honelako hitzaldiek asko laguntzen dute. Oso interesgarriak izan ziren. Eskerrik asko eta jarraitu horrela!".



GALDERA

• Kultura Sailak haurrentzako ekitaldiak antolatzen dituenean, zergatik ordaindu behar dute nagusiek bikoitza? Herritar batek esan digunez, nagusiak haurrei laguntzera joaten dira, eta sarreraren prezioa denentzat berdina izan beharko litzatekeela gaineratu digu. Kultura Sailera deitu dugu, eta ondorengo erantzun digute: "Ekintza arrakastatsuetan ume bati laguntzeko bi edo hiru nagusi joan izan dira batzutan, eta gertatu izan da umeak kanpoan gelditzea. Hori ekiditzeko altxatu genuen apur bat nagusien sarreraren prezioa. Dena dela, Elgoibarko sarreraren prezioak ez dira batere altuak, beste herri batzuetan, ekintza bera ikusteagatik gehiago ordaindu behar izaten da".



KEXAK

• Umeak Plaza Handian jolasean ibiltzen direnean, ez dute inolako konturik izaten: "Aste honetan bertan, Plaza Handitik pasatzean baloi batek emakume bat jo zuen, eta min hartu zuen. Ez da honelakoak gertatzen diren lehenengo aldia, eta seguruenik ez da azkena izango. Badakigu umeak direla, eta jolasteko adinean daudela, baina kontuz ibiltzeko eskatu nahi diet. Plaza Handian jende nagusia ere ibiltzen da pasiaran, eta edozein egunetan, zerbait larriagoa gertatuko da".

• Madalako errotondatik Urasandira igotzeko bidean zulo handi bat dago: "Madalako errotonda berria egin zutenetik, jende askok erabiltzen du bide hori Urasandira igotzeko, eta errepidean zulo handi bat dago. Denbora asko darama lurraz zulatuta, eta mesedez, konpontzeko eskatuko genuke".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Saileko zuzendaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN Luma

Afizioa ofizioa

Euskararen geroaz sarri hitz egiten da gure inguruan. Sarriegi agian. Pena eta poza biak sentitzen ditut *euskara* hitza inguratzaren zaidanean. Euskal Filologiako ikasketak egin nituen, eta pena ematen dit ikasketa horietan ikasle kopuruak etengabe behera egiten duela irakurtzeak. Beste muturrean, Jaurlaritzaren bozeramaile Miren Azkaratek esaterako, oraintsu esan du bere bizitza oparoan hainbat gauza aberats eginagatik, ez duela ahazteko, ez eta bigarren mailan uzteko ere, Euskal Filologia ikasi izana. Eta horra nire pozaren adibideetako bat. Askotan pentsatzen dut euskalgintzan lanean aritzea lanbidea baino gehiago dela, bizimodua eta zortea dela. Arloa zeinahi dela ere, langai dugun horrekin, euskararekin alegia, lotura berezia sortzen dela. Eta hari horretatik, ogibidea gizartea eraikitzeko urrats bat dela, geroa diseinatzeko hari bat. Sarri oroitzen naiz nire ikaskideez. Zertan arituko dira? Afizio genuena ofizio izango dute orain? Nirekin eskolatu ziren guztien urak ez doaz bide beretik, baina esango nuke euskara den "uharte" txiki horretan bizi garela guztiak. Eta horrek biziki pozten nau, euskarak jendearen arteko lotura izaten jarraitzen duela ikusteak, alegia...

Ainhoa Lendinez

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ANA CABALLERO

ARKAUZ
FERRETERIAKOA

Eskaera gehien duten produktuak?

Itsasgarriak, ateetako topeak eta edozer altzari zintzilikatzea errazten duten tresnak.

Oinarrizko elementuak brikolajearen arloan?

Zulagailu bat, tira fondoak, itsasgarri on bat, silikona pixkat eta "gauza guztiak konpontzeko" deritzon barratxoa.

Zein sarraila mota aholkatuko zeniguke aterako?

Erdibideko sarraila arrunt bat.

Zein da tendentzia ferreteria dekoratzailean?

Margoen gama zabalagoa, etxeko hormak kolore desberdinak dituzte, sakonera eta giro desberdinak lortzeko.

Zer deritzozu Brikomania telebista saioari?

Gogoko dut. Ideiak eskaintzen dituzte eta zeure kabuz, ezinezkoak iruditzen zitzaizkizun gauzak egiten dituzu. Zeure estiloa sortzen duzu eta era berean, dirua aurreztu.

Gustuko al duzu brikolajearen mundua?

Bai. Entretengarria da eta ondo pasatzen dut.

Gomendio bat?


Ferreteriako dendariari aholkua eskatu, behar bakoitzari hobekien egokitzen zaion produktua eskuratzeko.

Ferreteriako produktuak diseinura egokitu al dira?

Bai. Esaterako, katilu eta plateren diseinuan argi ikusten da.

komikia

Hil da gero...



Kokoe 080

[AKORDATZEN NAIZ]



MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

«Futbol ibilbidia»

Elgoibarren hasi, eta hemendik Logroñora juan nitzan. Hiru urte amaitxu aurretik, traspasua egin zien Irunera, Real Union-era. Real Union terzeran zauan, eta Logroñes bigarren "ascenso a tercera" jokatzeko. Lenen atara zaban terceran, eta gero ez gendun atara "ascensua": ez giñan ixo. Bitxartian, Palmera enpresiak (bizarrak kenzeko kutxillen enpresia zan; orduan famosua zan) ugazaba alemana zakan diruduna, eta harek erosi nindun Logroñesari.

Logroñes-ak kobrau, nik txikitarik ez, eta ni Irunera. Palmerako ugazabak utzi zabanian, Real Union-a beheara, dirurik ez eta. Orduan, traspasua Barakaldora. Eurak kobrau, eta ni Barakaldora jokatzera. Berriz ere berdiña.

Barakaldon urtebete ein naban. Han nauala, Jaengo presidentia etorri zan: zorra zakala Kordobakin, eta juggedore bat bialtzeko Kordobara, lehenagotikan Kordobak laga ziola-ta. Jaenek ordaindu neri, eta Kordoban urtebete. Gero etorri zan presidentia atzera eta Jaenera eruan nindun atzera. Handikan, Sevillara. Han ere traspasua. Jaenek dirua hartu, eta ni traspasuan Sevillara. Ibili nitzan traspasoz traspaso. Eta gero Sevillan berdiña. Han bi urte egiñ eta gero etorri zan Osasuna billa. Kordobakin, bigarren mailan, bigarren atera gendun.

Sevillan, lehenengo dibisuan jokatu naban lehenengo aldiz. Eta bostgarren geratu giñan. Gaur egunian, UEFA jokatzeko egongo giñan.



[GURE BERBAK]

Helburuzko esaldixak (2)

Aurreko astian esan gendun helburuzko egitura gehixenak aditz jokatu gabia daukenak dirala. Gaur hasiko gera horrekin.

Ondoko bi egitura hauen adibidiak ekarriko ditugu: -TZE ALDERA eta -TZIARRREN.


- Ba, pixkat denporia pasatze aldera ibiltzen naiz ortuan, zeozeren arduria euki.
- Nobixua topau naban. Zan mutill onona; baiña ibilli, ibiltze aldera ibiltzen nitzan nobixuakiñ.
- Eta tiruak bota jaittuen, hi. Jendia bildurtziarren, e!
- Gero, gabian jango zuan diperentia ero, baiña eguardixan behintzat, ezer ipintzen ez ibiltziarren, kafitesne katillukadia, eta hala!
- Hau jungo litzake hara, alaba ta han daurelako baiña, e! Alabana jutiarren baiña, ez bestela, ez haura parajia gustautau.
- Etxeberiñ, anaixan etxian bi hillebete egin dot: garua ebagi ita, hori basariko lanak eitten da, mantentze aldera.
- Astakertenak haura esan arren, neri berdin zidan. Gaiñera, harek ze jakingo zaban, ba? Medikua ere etzan da. Adarra jotze aldera esan zaban gaixorik nauala.

Jesus Mari Makazaga



www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri emateko
beste modu bat



ATERKINGS MUSIKA TALDEA

«Gure musikaren indarra zuzenekoan dago»

Aterkings musika taldeak pasa den azaroaren 24an, "Aterqueens" izeneko bigarren diska aurkeztu zuen Bilboko Kafe Antzokian. Bi elgoibartar eta hiru markinarrek osatzen dute taldea: Mikel Txurruka etxeberriarra (kitarra jolea); Iñigo Goikoetxea markinarra (ahotsa); Martxelo Mendizabal elgoibartarra (bateria); Iker Etxeberria markinarra (baxua) eta Alberto Gonzalez elgoibartarra (hammond organoa eta kitarra). Boskoteak, rock and rolla abiapuntutzat hartuta, musika mota desberdinak jorratzen ditu. Oinarria, aintzinako musikan dute eta beraien zenbait musika erreferente, Litt-chard, Elvis Presley, MC5, Ramones edo New York Dolls gisako artistak dira. Oraingo honetan, beren aldarterik zirikatzaileena erakustera datoz. Alberto Gonzalezekin hitz egin dugu.

► Zergatik "Aterkings"?

Egia esan, izenaren kontuarekin ez genuen denbora askorik galdu. Horrela, behin lokalean geundela, markinar batek aterkia ingelesez nola esango lukeen galdegin zigun: "ba, Aterkings" erantzun zuen gutariko batek. Hortik, izena.

► Zenbat denbora daramazue zuetariko bakoitzak musikaren munduan?

Taldeko abeslariari dagokionez, hauxe da Iñigoren lehenengo taldea, eta egia esan, antzematen zaio freskura zuzenekoetan. Gainerakoek, 10 urte baino gehiago daramatzagu taula gainean. Bi Markinarrak "Taupada" taldean jotzen zuten eta Martxelo eta nik, (Alberto), "6Nemen9" musika taldean ekin genion, duela 14 bat urte.

► Nola jaio zen Aterkings taldea?

Betidanik, betiko rock&rolla gustatu izan zaigu taldeko bostoi. Kontzertuetara joaten ginen eta giro honetan, ezagutu genuen elkar. Hasiara batean, bertsioak egiteko asmoak batu gintuen. Horrela, egun batean, kontzertu baten ostean geratu eta lokalera elkarrekin joan eta jotzen hasi ginen. Gure helburua ez zen talde bat sortzea, ondo pa-

satzea baizik. Kontu hauek, orain dela 5 urtekoak dira. Beranduago, abesti propioak egiten hasi ginen eta azkenean, hainbat lekutatik kontzertuak eskaintzera joateko gonbiteak igorri zizkigu-



► Zeintzuk dira lantzen dituzuen gaiak?

Letrei ez diegu garrantzia larregirik ematen. Are gehiago, letra batzuk nahiko zentzugabekoak dira, nahita horrela egingdakoak, probokatzeko. Gure musikaren indarra zuzenekoan dago, hau da, jarreran. Abeslariak hori bete betean transmititzen du eta eskenatik ezin hobeto mugitzen daki.

► Zer berritasun aurki ditzakegu lan berrian?

Estetikari dagokionez, trabesti bihurtu gara "New York Dolls" taldeari omenaldi txiki bat egiteko eta batik bat, geure buruari barre egiteko. Diska landuagoa da. Kanta azeleratuak daude eta beste asko, geldiagoak dira. Aurreko diska indartsuagoa zen. Oraingo honetan, aldiz, teklatuek indar gehiago dute; psikodelia eta wah-wah efektuak ere badira kitarretan. Berritasun horiek, kontzertuetan defenditu behar ditugu, eta hori dela medio, Jose Lastra grabazio arduraduna, eta Jon Llamosas teknikaria, zuzenekoetan ere, gurekin izango dira.

► Zer nolako harrera izan zenuten aurreko Rock'N'Roll diskarekin? Eta nolako espero duzue honekin?

Lehenengo diskari dagokionez, kritika oso onak jaso genituen. Euskal Herrian jotzeaz gain, Espainiar estatuko hainbat le-

► Nola definituko zenukete zuen musika estiloa?

Askok esaten dute punk-rock-a egiten dugula, baina, egia esan, CD honetako hamar abestietan, psikodelia, punka eta antzinako 60. hamarkadako rock'n'roll-a nahasiak daude.

kutan ezagutarazteko ateak ireki zizkigun. Bigarren diskari begira berriz, Zaragoza, Madril, Galizia eta Kataluniatik jotzera joateko eskaerak jaso ditugu dagoeneko. Horrez gain, Ameriketatik datozen taldeekin lanean jarduten duen agentzia batekin ere, zerbait lortzear gaude.

► **Zeintzuk dira epe laburrean eskainiko dituzuen kontzertuak?**

Abenduaren 30en diskaren aurkezpen kontzertua Markinan eskainiko dugu Uragoko Kultur Aretuan. Bertan Señor No eta Cujo arituko dira, gure diska berrian parte hartu baitute, biek ere. Urtariletik aurrera, hilean bi kontzertu eskaintzea da gure nahia.

► **Zaila al da euskal musikan leku bat egitea?**

Gure iritziz, talde ugari enpresa bezala funtzionatzen dute. Lehenagotik nagusia, diskaren promozio eta marketingak ematen dituen irabaziei etekina ateratzea litzateke. Meritua, gainontzekoek dute.

► **Zer nolako egoera bizi du euskal musikak?**

Egoera ezkorra da, euskal merkatua oso

mugatua delako. Etiketa berak ere ez du laguntzen, ez dakigu ondo definitzen zer den, euskal musika. Txalaparta eta albo-kaz eginiko musika? euskarazko heavy, blues edo rocka? Kontraesan asko daude. Politikak muga asko jarri dizkio euskal musikari eta euskal kulturari, baina baita lagundu eta indartu ere.

« Diska hau, Kike Turmixeri eskaini diogu »

► **Orain artean, zer lekutan jotzeko aukera eduki duzue?**

Euskal Herrian gehienbat. Baita Espainian ere (Asturias, Santander, Madrid...). Modu berean, Australiar, Norvegiar eta AEB-

tako taldeekin jo izan dugu. Oroitzapen onak ditugu. Atzerrian jotzeko proposamenak izan ditugu, baina bestelako betebeharrak ere baditugunez...

► **Bizi al daiteke soilik musikatik?**

Musikari gehienek beren musika ofizioa, beste lanbide batzuekin tartekatzen dute. Badira, Ruper Ordorikarenak bezalako salbuespenak. 20 urte baino gehiagoan tinko dirau bere ibilbidean, nortasunari leial eta sendo eutsiz, letrak zainduz eta musikari handienekin elkarlanean, Euskal Herrian, nahiz kanpoan.

► **Gehitzekorik?**

Bai. Gure hastapenetan, maketa kaxkar soil bat kaleratu genuenean, Kike Turmixek, gudan sinetsi zuen. Harrezkero, Euskal Herriatik at jotzen hasi ginen, Radio 3n gure musika jartzeari ekin zioten, eta aurreraxeago, gure lehen diska grabatu genuen. Iaz, minbiziak eraman zuen eta horregatik diska berari eskaini diogu. Berak ekarri zituen lehen aldiz Espainiara, "Hellcopters" edo "Dictators" bezalako taldeak. Guk "mundilloko" jendea ezagutu izana, berari zor diogu. Beraz, In Memoriam Kike Turmix!



[PROTAGONISTA]



Patxi **Arriola**

Patxi Arriola ehiztari elgoibartarrak Euskal Herriko Oilagor txapelketa irabazi du. Joan zen zapatuan jokatzen Gasteiztik gertu, Otogoiena eta Otobehekoa ingurunean. 5 orduko txapelketa izan zen, eta Patxi, "Pir" txakurraren laguntzarekin, oilagor bat botatzea lortu zuen. Ehiztariak esan digunez, oso zaila da oilagorak harrapatzea. Lau lagunek baina harrapatu zuten, baina araudiak dioenez, oilagorra azkena botatzen duenari ematen zaio txapela. Oraingoan Patxi izan zen azkena. Abenduaren 16an Espainiako Txapelketa hartuko du parte Patxi Arriolak Jaca inguruan.

[NOTIZIA]

Udalak emakume eta gizonezkoen berdintasunerako plana aurkeztu du

Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako plana aurkeztu zuen Udalak martitzenean, Musika Eskolako Auditorioan. Marivi Agirregomezkorta alkatea eta Arantza Mujika, Emakundeko idazkari nagusiak eskaini zuten prentsurrekoa.

Bi urterako plana

Marivi Agirregomezkortak azaldu zenez, Udaleko gizon eta emakumeen egoera zein den jakiteko diagnosia egin zuten lehenengo, eta hortik abiatuta osatu dute plana. Irekia eta malgua dela adierazi zuten, Udalaren barne antolamenduari zein udalherriari eragiten dion plana. Printzipioz bi urterako jarriko dute plana martxan, eta legealdi hau amaitu artean



behintzat, alkateak hartuko du plana betetzeko konpromisoa. Plana edozein herri-tarren eskura dago, beraz, norbaitek diagnosia edo plana bera eskuratzeko interesa badu, udaletxera jo dezake.

[ZENBAKIA]

107.930

Udalak 107.930 euro erabiliko ditu San Rokeko Haur Eskolako altzariak erosteko. Proiektua lehiaketara aterata dago,

eta enpresa aukeratzen denetik, sei aste epea edukiko du lanak egiteko. Honekin amaituko dira Haur Eskolako obrak.

asteko [ARGAZKIA]



Jonathan Romerak aurkitutako perretxikoa ekarri digu bere aitak BARRNEko erredakziora. Lanperna ikusgarria benetan! Sustrai bakarretik 16 perretxiko txiki ateratzen zaizkio. Perretxiko zalea da eta perretxiko bila sarritan ibili den arren, sekula honelakorik ez duela ikusi aitortu digu; harrিতa zegoen, txundituta. Perretxiko tortila ederra jateko moduko pieza da, ezbairik gabe. Gainera, perretxiko ona da lanperna, jangarria, baina berak ez duela jango adierazi digu. Perretxikoekin kontu handiz ibili behar da eta ondo ezagutu gabe hobe da ez jatea.

Santa Klarako etxebizitzaren zozketa zuzen egin dela adierazi digute Jaurlaritzatik



Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailetik adierazi digutenez, Santa Klara auzoko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketa legediaren barruan eta zuzen egin zen. Beraien esanetan, 12 etxebizitza hauek erregimen pribatukoak dira eta Kooperatiba batek kudeatu ditu. Jaurlaritzatik ziurtatu digutenez, Elgoibarko etxebizitza hauen zozketa, beste herri batzuetan egin den modu berean egin da.

Informazio falta

Etxebiden izena emanda zuten elgoibartar askok informazio falta egon dela

adierazi du www.elgoibarren.net webgunean. Honen aurrean, arauak ondo bete direla dio Jaurlaritzak: "Lurralde historikoan zabalkunde handiena daukan egunkarian eta Aldizkari Ofizialean egin behar da deialdia, eta kooperatiba honek hala egin du. Gainera, Etxebideko webgunean ere informazioa bazegoen". Aizkorri Kooperatibak El Mundo egunkaria aukeratu zuen. OJD difusio eta tiradak neurtzen dituen enpresako datuak lortu ditugu; 2002ko datuak dira. El Mundok 3.696 ale banatzen ditu Gipuzkoan eta Diario Vasco 104.000 baino gehiago.

[MOTZ-MOTZIAN]

Zine politikoa

Ongarri Zike Klubak bi ekintza antolatu ditu: Etxerat taldearekin batera "Camino a Guantanamo" (Berlin 2006, zuzendari onenaren saria) pelikula eskainiko du abenduaren 7an. Einbiourekin elkarlanean, bestalde, "El viento que agita la cebada" (Cannes urrezko palma) filma ikusi ahal izango dugu abenduaren 14an. Emanaldiak gaueko 21:30ean izango dira Herriko Antzokian.

Baserritarrentzako ikastaroa

Debemen Elkartek baserritarrentzako E-learning ikastaroa antolatu du. Ordenagailuaren oinarriko erabilera, internet eta word XP erakutsiko zaie. Ikastaroa dohainik da, eta ez dago informatikaz ezer jakin beharrik. Abenduaren 11n hasiko da. Informazio gehiago 943744067 telefonon.

Pirritx eta Porrotx

Euskara Sailetik esan digutenez, abenduaren 27an izango den Pirritx eta Porrotx pailazoaren saiorko sarrerak agortuta daude. Saio bera abenduaren 1ean eta 2an Eibarren (Txutxufletas dendan eros daitezke sarrerak) izango da, eta 26an Azkoitin (abenduaren 20an jarriko dira salgai bertako kiroldegian).

Negulekuak

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak Negulekuak antolatu ditu Gabonetarako, Haur Hezkuntzako 3tik 5 urtera bitarteko umeentzat eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat. Abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era izango dira. Azaroaren 28tik abenduaren 12ra arte izango da izena emateko epea. Negulekuen prezioa 35 eurokoa da. Informazio gehiago Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen edo 943741626 (Nagore) telefonon.

Txarriduna hotela inauguratu dute



1949ko azaroaren 28an ireki zuten ateak lehenengo aldiz Txarriduna hotelak. 57 urte pasa diren aste honetan, hotel berria inauguratu dute. Hotel zaharraren ondoan eraikin berri eta dotorea zabaldu dute. Bi solairutan banatuta, 22 logela ditu. Dekorazio aurrerakoi eta modernoa erabili dute. Logela guztiek telebista daukate, eta 45 eta 65 euro bitarteko prezioan pasa daitezke gaua bertan, gosaria bame. Kafetegia eta enpresa edo elkartearen erabilpenerako beste gela bat ditu.

Inkesta

Euskararen Nazioarteko Eguna izango da abenduaren 3an.

Erabiltzen al duzu euskara zure eguneroko bizimoduan?

FELISA AGIRRE
Etxekoandrea
73 urte



“Bai, batez ere umeekin erabiltzen dut. Ni azpeitiarra naiz, eta berezkoa daukat euskara. Senarrarekin ere egiten dut, baina hari gehiago kostatzen zaio.”

TXARO ARRIAGA
Etxekoandrea
65 urte



“Bai, senarrarekin eta bilobekin dena egiten dut euskaraz. Ikastolara joaten dira eta beraietara errazago ateratzen zaie euskara. Seme-alabekin gutxiago erabiltzen dut.”

FELI OSTOLAZA
Etxekoandrea
56 urte



“Bai, etxean dena euskaraz egiten dugu, eta kalean ere, nik lehenengo hitza beti euskaraz. Koadrilako lagun batzuk ez daki euskaraz, eta haiekin erderaz egiten dut.”

AINHOA MUGERZA
Ikaslea
9 urte



“Bai. Gurasoekin, ikastolan eta lagunekin dena euskaraz egiten dut. Mdrileko nire lehengusinak ez daki euskaraz, eta berarekin erderaz hitz egiten dut.”

[BAI ala EZ?]

Errespetatzen al dituzu semaforo eta zebrabideak?

BAI %41

“Bai. Oinez nuanian errespetatua izatia gustatzen jata eta kotxian nixenian ere oinezkoak errespetatzen ditut. Denon hobeko da, danok errespetatu biharko genituzke.”

EZ %59

“Ez, oinez nuanian ez diitut semaforo eta zebrabideak errespetatzen. Gehiegizkoa iruditzen jata danagatik isunak jartzia. Oinezkuentzat ere puntukako karneta jarri behar ote debe?”

Datorren asterako.... Emakume eta gizonen berdintasunerako plana aurkeztu du Udalak. Lortuko al da noizbait emakume eta gizonen arteko berdintasuna?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOAKOAK



**Naiara Gonzalez
Farell**

[Azaroak 11]
Francisco Javier
eta Marlene



**Irati Loiola
Narbaiza**

[Azaroak 15]
Xabier eta Izaskun



**June Martiz
Lebriain**

[Azaroak 20]
Arantza eta
Richard



**Iker Kapanaga
Alvarez**

[Azaroak 23]
Aitor eta Ainara



Intza eta Beñat Izagirre Aranbarri

[Urriak 30]
Esteban eta Itziar



Maren eta Adur Aranburu Salegi

[Urriak 4]
Jon eta Miren

HILDAKOAK

Francisca Palencia • [94 urte] • Azaroak 6
Jesus Mugerza • [74 urte] • Azaroak 7
Pedro Bollar • [84 urte] • Azaroak 13
Jose Ramon Etxeberria • [61 urte] • Azaroak 15
Sotera Mendizabal • [81 urte] • Azaroak 23
David Torrents • [31 urte] • Azaroak 27

EZKONTZAK

Hilabete honetan ez da ezkontzarik egon.

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

DBHko irakaslea

AMY CORTABITARTE



1 Zergatik irakasle?

Egia esan, sekula ez nuen uste irakasle izango nintzenik. Informatika ikasketak bukatu nituenean, Elgoibarren informatika irakaslea behar zutela esan zidaten. 4 urte daramatzat hemen!

2 Gustura etortzen al dira umeak informatika ikastera?

Bai, informatika asko gustatzen zaie.

3 Egin al duzu topo zuk baino gehiago dakien ikasleren batekin?

Ez, baina badaude saltseatzea gustatzen zaienak eta askotan truko berriak erakusten dizkidate.

4 Ordenagailua lanerako tresna ala hobby bat da zuretzat?

Denerako erabiltzen dut ordenagailua.

5 Imajinatuko al zenuke ordenagailurik gabeko mundu bat?

Imajinatu bai, baina oso zaila izango litzateke berriro horretara ohitzea.

6 Informatikan, zer da ikasleei gehien gustatzen zaiena?

Internet, txat-a eta jolasak dudarik gabe.

7 Jarri al duzu sekula suspentsorik?

Momentuz ez, baina merezi duenari jarriko diot.

8 Irakasle ez bazina?

Informatikako programatzailea.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



Mª KARMEN LIZUNDIA ama



ZURI E CONDE alaba

GALDERAK

1. Gabonetako egunik gustukoena?

2. Zein motako musika entzuten duzu?

3. Egin duzun azken ametsa?

4. 18 urte bazenu?

5. Aberatsa bazina?

6. Asteko egunik txarrena?

7. Iratzargailuak jotzen duenean?

8. Negua ala uda?

1. Urte zaharra: kanpaiak, plater apurketa...

2. Denetarik, momentuaren arabera.

3. Gauza oso arraroak amesten ditut.

4. Seguruena gauza bera egingo nuke.

5. Lana utzi eta bidaiatu.

6. Astelehena, psikologikoa da.

7. Askokostatzen zait jaikitzea.

8. Uda: eguzkia, argitasuna ditut gustuko.

1. Urte zahar eguna.

2. "Operación triunfo".

3. Futboleko gola sartzen nuela.

4. Kotxeko kameta aterako nuke.

5. Etxea erosiko nuke, igerilekuarekin.

6. Astearte, irakasgai zatarrak ditut.

7. Amama da nire iratzargailua.

8. Uda, hondartzara joateko.

TXIKI inkesta

Zer eskatuko diozu Olentzerori?


Imanol Beristain
10 urte

Play Station-erako joko bat, atletismorako zapatila batzuk eta Athletic-eko kamiseta bat



Iker Mancebo
10 urte

Joku bat, bizikleta bat eta Realeko kamiseta bat eskatuko diot aurten Olentzerori.



Ander Ansola
10 urte

Play Station-erako "The Simpson" jokua eta mundu guztirako poztasuna eskatuko diot.



Rocio Ortega
10 urte

Nik Nintendo Dsi joku bat nahi dut eta jendeari dirua eta janaria ez faltatzea eskatuko diot.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

"EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK"

CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Mikel Mujika**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com

txapela bURUAN...



EXETER - BRITANIA HANDIA

Amaia Gorrotxategi

Amaia Gorrotxategi, hogeituro urteko elgoibartarra, Exeter izeneko hirian dago. Zuzenbide Ekonomikoa karrerako hirugarren ikasturtea egiten dihardu, Erasmus izeneko bekari esker. Bi hilabete daramatza Erresuma Batuan eta ekain amaierara arte bertan gelditzeko asmoa du. Amaiak jakinarazi digunez, betidanik izan du atzerrian denboraldi bat igarotzeko gogo. Gazte elgoibartarrari esperientzia aberasgarria iruditzen zaio honako hau, bai alderdi profesionalen, baita pertsonalen ere; nahiz eta Euskal Herriko hainbat gauza faltan bota. Besteak beste, lagunak, familia, janaria, eta hemengo paisaia.

Zerk harritu zaitu gehien Exeterretik?

Batetik, jatorri desberdineko pertsonen aniztasunak. Esaterako, Kanpuseko ikasleak naziotasun guztietakoak dira: beltzak, marokoarrak, arabiarak, txinatarrak, japoniarrak... Bestetik, biztanlegoaren maila ekonomikoan dauden desberdintasunek arreta deitu didate. Ez dago "erdi maila klaseko" jende askorik.

Nolako da bizimodua?

Exeterren bizimodua oso lasaia da. Hiri txikia denez, ez dago zarata handirik, ezta, trafiko mugimendu handirik ere. Britainia Handia osan bezala, eguneroko bizitza goiz amaitzen da. Denda gehienek arratsaldeko 6etan isten dituzte beren atekak. Ondorioz, kaleak nahiko hutsik geratzen dira. Era berean, ez dago Euskal Herrian dugun gau girorik, taberna eta diskoteka oro 2:00etan isten baitute.

Nola definituko zenituzke biztanleak?

Jendea orokorrean, nahiko itxia eta faltua iruditzen zait. Ongi heziak dira, eta komeni zaie oso ondo tratatzen zaituzte, baina hurrengo egunean, ez zaituzte kalean agurtzen. Inglesak oso hotzak dira. Ni normalki, kanpoko jendearekin ibiltzen naiz. Beste kultura eta ohitura batzuk dituzten pertsonekin elkarbizitzeak, asko irakasten dizu.

Non zaude ostatu hartuta?

Pisuz osaturiko erresidentzia batean bizi naiz, jatorri desberdineko 12 lagunekin batera.

Exeterrera bidaiatuz gero, bisitatzeko leku bai?

Katedrala ikusgarria da, barnetik eta kanpotik, Britainia Handiko ospetsuenetako bat. Ibai aldean ere, oso polita da. Ibai ondoko pasealekua osteratxo bat egitea aholkatuko nuke.



Jakin
haizea dakiten orriak

50 JAKIN, GURE KULTURAREN URTE ALDIZKARIA

Harpidetzu zaituz eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 218092
Idatzi: jakin@jakingunea.com
Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro
Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

BARREN

jakiTeko...

EUSKARA SEXISTA AL DA?

Biluzik Sexologia Zerbitzuak "Euskara sexista al da?" izeneko hitzaldia antolatatu du. Hizkuntzen inguruan sarritan entzun izan da sexistak direla, genero maskulinoaren aldekoak direla, eta genero femeninoa gutxiesten dutela. Euskararen kasua

ere berdina ote da? gauza hauei buruz hitz egingo dute hitzaldi honetan. Datoren abenduaren 13an izango da Kultur Etxeko Sotoan arratsaldeko 19:00etan. Hizlaria Amelia Barquin izango da, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

IKUS-ENTZUNEZKOEN II. RALLY-A



Euskara Elkarteek Topaguneak antolatuta, Ikus-entzunezkoen II. Rally-a izango da abenduaren 16an, Aiaraldean (Araba). Iaz, Eibarren izan zen 1go edizioa, eta izandako arrakasta ikusita, berriro antolatzea erabaki dute. Goizeko 9:00etan hasiko da lehiaketa, eta Aiarako kuadrila osatzen duten 5 herrietan egingo da grabaketa. Sari banaketa egunean bertan egingo da. Hiru sari banatuko dira: lehenengoarentza 1.500 euro, bigarrenarentzat 1.200 euro eta hirugarrenarentzat 900 euro. Informazioa: 94 6814821 edo 616118795 telefonoetan.

XX. JOKIN ZAITEGI LITERATURA BEKA



Arrasateko AED Elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Kutzaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi arrasatear idazlea gogoratzeko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari jarraitzeko, XX. Jokin Zaitegi Sariaketa antolatu dute. 2006an Suediako Akademiak Orhan Pamuk idazle turkiarrari eman dio Literaturako Nobel Saria, eta Jokin Zaitegi Sariaketa honen helburua Pamuk-ek idatzitako Kar (Elurra) eleberria itzularaztea da. www.elkarlanean.com/jokinzaitegi helbidean jaso daiteke informazioa eta testuak.

gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

ION GURRUTXAGA MUSIKARIA

«Rory Gallagherren bizimodura hurbiltzeko aukera eskaini dit liburu honek»



“Rory Gallagher, kemena eta leialtasuna” izeneko liburua kaleratu du Ion Gurrutxagak, Paperezko Hotsak argitaletxearekin. Lan handia egin ondoren, tamaina txikian kaleratu du liburua, baina emaitzarekin oso gustura geratu dela azaldu digu. Musikari irlandar honi buruz apur bat gehiago ikasi dugu gaurkoan.

► Zergatik Rory Gallagher?

Musikari honi buruz oso gauza gutxi dagoelako idatzita, eta dagoen apurra ingelesez dagoelako. Gainera, Roryren oso zalea naiz. Bestalde, Roryk Euskal Herriarekin ere izan zuen lotura; bost kontzertu eskaini zituen hemen: Donostian bi, Irunen, Hendayan eta Lekeitiion. Hemen baditu jarraitzaileak eta oso sutuak gainera.

► “Kemena eta leialtasuna”. Zergatik izenburu hori?

Rory Gallagher definitzen zituen bi ezaugarri garrantzitsu direlako. Batetik oso kementsua zen zuzeneko emanaldietan, karakter handiko musikaria zen, dena ematen zuen. Bestalde, bere musika ideiekiko oso leiala zen, oso argi zeuzkan bere ideiak eta ez zituen aldatzen. Rolling Stones taldean sartzeko aukerari ere, ezetz esan zion.

► Nola lortu duzu informazioa?

Lehenengo dokumentazio lana egin nuen. Berari buruz idatzita dauden liburu eta aldizkariak eskuratu eta bere inguruko jendearengana iristen saiatu nintzen. Musikari apala zen, gauza handiak egin zituen arren, ez zen “rock star” handi horietako bat, beraz, bere taldekideekin edo anaiarekin hitz egi-

teko aukera izan nezakeela uste nuen. Donal anaiarekin jarri nintzen harremanetan eta Londresera joan nintzen. Bere etxe inguruan hotel bat aurkituko zidala esan zidan, baina ezin izan zuen ezer topatu. Bere etxean hartu ninduen, eta hiru egun pasatu nituen han. Roryk egindako musika zabaltzeaz arduratzen da orain Donal, beraz, oso prest agertu zen. Roryren taldekideekin egoteko

«Musika eta kazetari lana uztartzeko aukera izan dut»

aukera ere izan nuen; armonika jolea eta Roryren gitarra zaintzen zuenarekin egon nintzen. Honetaz gain, Euskal Herrian eskaini zituen kontzertuen kronikak egin ditut. Antolatzaileekin egon naiz eta informazio asko

lortu dut. Gainera, kontzertu horietan egon zen musikari euskaldun batzuekin egon naiz: Anje Duhalde, Txomin Artola... Informazio interesgarri mordo bildu dut.

► Liburu honek eman dizun onena?

Alde batetik Roryren bizitzara gerturatzeke izan dudana aukera azpimarratuko nuke. Londresen egindako zitaz gain, telefonoz beste taldekide batzuekin ere hitz egin nuen. Gainera, nire liburuan benetako aipua jasotzeak sinesgarritasun handiagoa ematen diola iruditzen zait. Bestalde, Rory asko maite dudana musikaria da, eta berari buruz euskaraz idazteak ilusio handia egiten zidan.

► Musikari, kazetari eta orain idazle. Non sentitzen zara hobeto?

Musikan, ni musikaria naiz. Norberak egindako musikarekin bizitzea zaila da. Ni orain musikaz bizi naiz, baina irakaslea naizelako. Liburu honekin musika eta kazetari lana uztartzeko aukera izan dut.

► Non eskuratu daiteke liburua?

Lehenengo Durangoko Azokan jarriko da salgai, eta gero, liburudendetan ere egongo da. Honetaz gain, Udal Liburutegietan jarriko da jendeak kontsultatu ahal izateko.

TITIRIAI'06

"Las Aventuras y desventuras de Perico de los Palotes" abenduaren 3an Herriko Antzokian

Costa Ricaco Cucaramacara txontxongilo taldea Elgoibarrera dator, "Las Aventuras y desventuras de Perico de los Palotes" izeneko emanaldia eskaintzera. Familia osoarentzat zuzendua dagoen saio hau, Herriko Antzokian ospatuko da, igande honetan, arratsaldeko 16:30etik aurrera.

Saio honetako protagonista, Perico de los Palotes deiturako papagaitxo zahar eta jakintsu bat da. Istorioren haria, papagaitxoaren bizipenen inguruan zentratuko da. Papagaitxoak, txikia zela, gizakiengandik bahitua izan zen eta hitz egiten eta abesten ikasi zuen. Gizakien bizitzan murgilduta zegoela, Perico de los Palotes papagaitxoak Hansel ezagutu zuen, txokolate etxetxoko sorginak bere maskota bilakatu nahi izan zuen mutikoa. Modu berean, galdutako papagaitxo baten bila aritu zen, beste hainbat abenturen artean. Azkenik, Palotes papagaitxoak, preso egon ondoren, probadore eta titiriteroekin geratzea erabakitzen du. Sarrerak, lehiatilan salduko dira egunean bertan. Helduek, 4,50 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek, 2,50 euro.



Euskadi Rural Siglo XXI ezagutu eta eskertu erakusketa



Iaz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak eta MENDIKOI, S.A. institutuak argitaratu zuten "Euskadi Rural siglo XXI" liburuak izan zuen harrera ona ikusita, oraingo honetan, argazki erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxeko Erakusketa gelan. Argazki erakusketa honen bidez, nekazaritzan, abeltzaintza eta arrantzan lan egiten duten gizon-emakumeen bizitza isladatzen da. Helburuak honakoak: gi-

zarteari Euskadiko lehen sektorearen egoera erakutsi eta etorkizun handikoa dela aditzera ematea, landa ingurumena alde eta ingurune horretan lan egiten duten eragileen parte hartzea lortzea eta azkenik, lehen sektoreko protagonistak ezagutarazi eta dagokien balioa ematea. Erakusketa abenduaren 2tik 13ra luzatuko da. Ordutegia, astelehenetik larunbatera (19:00-21:00 eta jai egunetan, 12:00-14:00).

"Henry Bengoa Inventarium" emanaldia

Euskararen eguna dela eta, "Henry Bengoa Inventarium" izeneko ikuskizuna izango da gaur ikusgai Herriko Antzokian, eta iluntzeko 22:15tik aurrera. Kandido Uranga, aktore zumaiaarak, literatura eta antzerkia uzartu ditu, Bernardo Atxagaren obra oinarri hartuta. Musika eta irudiak lagun dituela, arituko da Kandido oholtza gaineko emanaldian.

"Filomena Marturano" antzezlanaren ikusteko irteera Haizea Emakume Taldearen eskutik

Haizea Emakume Taldeak datorren abenduaren 9rako irteera bat antolatu du, Bilboko Arriaga Antzokian izango den "Filomena Marturano" antzezlanaren ikustera joateko. Sarrerak salgai daude, Pitxintxu dendan, bazkideentzat 22 euroren truke eta bazkide ez direnentzat 25 eurotan. Autobusa egongo da Elgaibartik arratsaldeko 18:30ean.

AUTODETERMINAZIOAREN ALDEKO IGOERA MENDARON

Josu Arregik irabazi zuen Alkortarako I. Korrika Igoera

Autodeterminazioaren alde, pasaden zapatuan, Alkortara I. Korrika Igoera antolatu zuen Mendaroko ezker abertzaleak. Guztira, 22 antxintxikarik parte hartu zuten proba honetan. Goizeko 10:30ean hasi zen lasterketa Mendaroko Udaletxe aurretik eta korrikalariak 4,7 kilometrotako ibilbide luzea burutu behar izan zuten.

Proba honetako irabazlea, Josu Arregi azpeitiarra izan zen, 21:22 denbora egin ondoren. Bigarren postua, berriz, Jon Revert elgoibartarrak, eskuratu zuen 23:47ko denborari esker. Hirugarren sailkatua, bestalde, eta aldi berean, helmugara iristen aurreneko mendaroarra, Jon Larrañaga izan zen (25:11). Azken honi, oso hurbiletik, Igor Rey mendaroarrak jarraitu zion, 25:24ko denbora lortuz.



Proba bukatu ondoren, parte hartzaile guztiek hamaiketako bikaina eduki zuten.

Antolatzaileak gustura geratu dira, aurreneko igoera honek izan duen partaidetza eta erantzunarekin.

SAILKAPENA

Postua	Izena	Herria	Denbora	Postua	Izena	Herria	Denbora
1	Josu Arregi	Azpeitia	21:12	12	David Hidalgo	Markina	29:44
2	Jon Revert	Elgoibar	23:47	13	Alain Ulazia	Mendaro	32:27
3	Jon Larrañaga	Mendaro	25:11	14	Joseba Elustondo	Elgoibar	32:50
4	Igor Rey	Mendaro	25:24	15	Mikel Tarragual	Mendaro	33:17
5	Sabino Zenarruzabeitia	Aulesti	25:32	16	Borja Rodriguez	Mendaro	34:32
6	Adur Juaristi	Elgoibar	26:40	17	Aitor Etxeberria	Mendaro	34:32
7	Eduardo Uribe	Eibar	27:15	18	Aitor Agirrebeña	Mendaro	34:54
8	Roberto Osoro	Mendaro	27:19	19	Enez Ezenarro	Mendaro	37:29
9	Ibon Villanueva	Elgoibar	27:39	20	Gartxot Fidalgo	Mendaro	42:20
10	Arkaitz Irureta	Elgoibar	27:36	21	Otzalar Urain	Mendaro	42:20
11	Jurdan Ezenarro	Mendaro	28:08	22	Ibai Begoña	Markina	43:24

Andoni Gabilondo, Real Sociedadeko jokalaria elgoibartarrak, C.D. Elgoibarren jokatuko du denboraldi batez

Andoni Gabilondo, futbol jokalaria elgoibartarra, C.D. Elgoibar taldean jokatzen hasiko da. Modu honetan, C.D. Elgoibarrek bere plantila indartuko du. Real Sociedad B taldetik datorren jokalaria, eskuin hegalean arituko da.

Andoni beraren nahia aintzat hartuz eta gehiago jokatu dezan, Juan Antonio Larrañaga, Galtzarekin harremanetan jarri, eta jokalaria denboraldi batez utzi dio, C.D. Elgoibarren jokatuko dezan.

Egoitz Mora Portugalgo selekzioaren aurka arituko da



Bihar Usubilgo Kiroldegian, Euskadi-Portugal lehia ikusteko aukera izango da, judo modalitatean eta arratsaldeko 18:30etik aurrera. Egoitz Mora judoka elgoibartarra ere, bertan izango da. Guztira, 13 borrokaldi egongo dira eta bi ordutako iraupena izango du saioak. Gainera, norgehiagoka bakoitza, pantaila erraldoi batean jarraitu ahal izango da. Tatamia argitzeko, 20.000 watio argi erabiliko dira eta ikuskizun ikusgarria izango da.

XAKEA

XVI. Nazioarteko Xake Txapelketa jokatuko da Elgoibarren

Urtero bezala, abenduarekin batera, Nazioarteko Xake Txapelketaren atarian aurkitzen gara. Aurtengoan, XVI. edizioa ospatuko da abenduaren 11tik 17ra bitartean eta ohikoa den bezala, partidak Kultur Etxeko hitzaldi Gelan jokatuko dira, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Aurkezpen ekitaldia, abenduaren 11n izango da eguerdiko 12:30ean eta Kultur Etxean. Aurtengoan ere, jatorri desberdinetako hamar xake jokalariz izango ditugu gurean. Faboritoen artean, Oleg Korneev errusiarra eta Azer Mirzoev azerbaiyandarra aurkitzen dira. Honakoak dira partaideak eta bakoitzak duen puntuazioa: Oleg Korneev (Errusia) GM 2.657; Azer Mirzoev (Azerbaiyan) GM 2.543; Eric Prie (Frantzia) GM 2.516; Dragan Paunovic (Serbia) MI 2.505; Manuel Perez (Espainia) MI 2.496; Mairo Gomez (Euskadi) GM 2.486; Claude



Landerbergue (Suitza) 9 MI 2.446; Ivan Salgado (Espainia) MI 2.425; Iñigo Argandoña (Euskadi) MI 2.396 eta Santiago Gonzalez de la Torre (Euskadi) MI 2.357.

Donostiako maratoian 8 elgoibartarrek hartu zuten parte



Pasa den zapatuan, Donostian leku izan zuen maratoian, heriko zortzi antxintxikari aritu ziren korrika. Jose Antonio Ruiz izan zen elgoibartarren artean, helmugara iristen aurrenekoa. Sailkapen orokorreko 42. postua eskuratu zuen 2:41:51-ko kronoa egin ondoren. Handbike modalitatean, berriz, Igor Elizburuk irabazi zuen proba 1:59:00-ko denborarari esker. Sailkapen orokorrean, William Serem keniarrek bereganatu zuen garaipena (2:16:20) eta emakumezkoen mailan, Angela Danson eskoziarrak (2:49:36).

"Mendian norbere segurtasunerako tailerrak" Morkaikoren eskutik

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, "Mendian nor bere burua babesteko" tailerra izango da Kultur Etxeko Sotoan, abenduaren 12 eta 14an. Federazio teknikariek emango dituzte tailerrak euskaraz zein erderaz eta mendian segurtasuna izango dute ardatz. Asteartean, segurtasun arropak, materiala eta orienta-

zioa izango dituzte hizpide. Ostegunean, berriz, hidratazioa, elikadura, lehen laguntzak, mendirako prestakuntza eta lesioak. Tailerrak doan dira. Izena emateko, Morkaikoko lokaletik pasa, buzoian eskaera bota edo emailaz bidali. Tailerrak, 18:30etik 21:00tara izango dira Kultur Etxeko Sotoan.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 1 - Tolosa 0
Elgoibar 0 - Eibartarrak 2 (erreg. 1)
Burumendi 2 - Elgoibar 1 (jub.)
Elgoibar 10 - Bergara 0 (kad.)
Elgoibar 4 - Arrasate 3 (O. infan.)
Aretxabaleta 2 - Elgoibar 1 (infa. txiki)
Eibartarrak 2 - Elgoibar 0 (neskak)

ESKU PILOTA

Lagunak 22 - Ramuntxo 9 (Gipuzk. txapel.)

ARETO FUTBOLA

Ikusnet 9 - Kenci 2 (Euskal Liga)
Buruntza 6 - Kenci 2 (gipuzk. 2.mail.)
Relojes Mondaine 6 - Elgoibar 2 (gipuzk. jub.)

ESKUBALOAIA

Aterpe 2 - Aloñamendi B 5 (inf. nesk.)
Olalsa 25 - Bergara 3 (inf. nesk.)
Lojantzi 22 - San Adrian 18 (Senior. nesk.)
IMH 21 - Bera bera 20 (kad. nesk.)
Gaztelueta 27 - Pneumax 22 (jun.mut.)
Gaztelueta 20 - Tecnomec A 31 (kad. mut.)
Arrasate 32 - Tecnifuelle 29 (sen. mut.)
H Txariduna 8 - Arrate A 35 (inf. mut.)
Aiala 28 - Cometel 13 (jun. nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan
Zapatua, 2
18:30 Elgoibar - Kostkas (jub.)
12:45 Elgoibar - Sportin de Herrera (inf. txiki)
Domekia, 3
12:00 Elgoibar - Anaitasuna (neskak)
Eguastena, 6 Ligako Partida
16:30 Haundi - Eibar B
18:30 Elgoibar - SanPedrotarrak (erreg.1)

ESKU PILOTA

Ikastolako Frontoian
Barixakua, 1
22:00 Lagunak - Behar Zana (2. mail. nagus.)

ESKUBALOAIA

Kiroldegian
Zapatua, 2
12:00 Aterpe - Aloña (inf. nesk.)
17:30 Tecnifuelle - Gurejorge Fernandez (sen. mut.)
Domekia, 3
10:00 Tecomec A - Arrate (kad. mut.)
11:30 Pneumax - Arrate (jun. mut.)

ARETO FUTBOLA

Kiroldegian
Zapatua, 2
16:00 Kenci - Ortzi (Euskal Liga)
13:00 Elgoibar - Anoetako Gazte Asanblada (jb.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ San Frantzisko kalean pisua salgai. 100m². Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. **607741678**
- ▶ Pisua salgai Altzolan. 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea. **619812448**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea,
komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Biziizera sartzeko prest.
943 03 38 44
686 62 21 92

ALOKAIRUA

- ▶ Etxebizitza alokatzen da Urasandin. **943 742727**
- ▶ Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. **697897899**
- ▶ Pisua alokatzen da Azkoitin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua. Alizariekin. 500 euro hilean. **650186229**
- ▶ Pisu berria alokatzen da. Igogailua, 2 logela, egongela eta sukaldea. **655711334**

[AUTOAK]

- ▶ Fiat furgoneta salgai. SS-BC. **639101757**
- ▶ Trialera motorra salgai. Gas Gas markakoa. **639101757**
- ▶ Citroen C3 autoa salgai. Diesel, 70 zaldi, 2004koa. 7.400 euro. **660027976**
- ▶ Motorra salgai. Vespa 200.1984. 400 euro. Paperak ondo. **943531771**
- ▶ Opel Kadett 1.6 diesel autoa salgai, motza. 500 euro. **620135958**
- ▶ Kawasaki GPZ-500S motorra salgai. 91koa, ondo zaindua. Margotu berri. Asegurua 2007ko abuztura arte. ITV maiatzera arte. **616266212**
(15:00etatik aurrera)
- ▶ Home Cinema JBL salgai. 5 bozgorailu+subflower. Urte bat, gutxi erabilia. Egurrezkoa, apalekin. Kalitate eta soinua bikaina. **616266212**
(15:00etatik aurrera)
- ▶ Piaggio-Vespa Typhoon 50 RST motorra salgai. 2000. urtekoa. Egoera onean. Garaiean lo egiten du. **943742268**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje itxia salgai Jausoron. **686 22 44 38**
- ▶ Garajea saldu edo alokatzen dut Urasandi eta Madala artean dagoen Anayak eraikuntzan. Itxia, 2 pisukoa, bakoitzak 24m². **620431480**
- ▶ Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan. 16m². **615787748**
- ▶ Garajea alokatzen da San Roken, Instituto ondoan. Lehengo Antxustegi. 15m². **616266212**
(15:00etatik aurrera)
- ▶ Marradun garajea hartuko nuke alokairuan. hilean 60 euro ordaintzeko prest. **655728752**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Taberna ederra salgai. Berritua. Negozioa martxa onean. **607457024/685777609**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Neska garbiketa lanak egin, edo nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. **617056828**
- Emakumea lanerako prest. **646832693**
- Emakumea lanerako prest. **666001575**
- Emakumea lanerako prest. **636362251**
- Emakumea lanerako prest. **646235195**
- Emakumea lanerako prest, externa edo interna moduan. **686578228**
- 60 urteko emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **943741872**
(17:00etatik aurrera)
- 1. eta 2. Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. **943531054**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Gavez edo egunez. Esperientzia daukat. **943744433**

- Emakumea garbiketa lanak egin, etxeko lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **686617930/943530130**
- Ingeles eta frantses klaseak ematen dira. Natiboa bi hizkuntzatan. **943743011/605772285**
- Mendaroko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. **660674025**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **699609190**
- Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. **666793486**
- Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. **666793486**
- Neska arduratsua arratsaldetan lan egiteko prest. **617033906**
- Mutila lanerako prest. **671289583**
- Mutila lanerako prest. **667348215**

- Neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. **617056828**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **639882004**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **943172896 (Mertxe)**
- Kamareroa lanerako prest. Esperientziaduna. Euskaraz egiten dut. **620049420**
- Geriatriako erizaintzako laguntzaile euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziaduna, informeak. **660511781/943742330**
Elena

ESKAINITZA

- Debako taberna baterako kamareroa behar da. **629720293**
- Gabi jatetxerako kamareroa behar da, barra eta jantokirako. **943 741230**
- Jatetxerako kamareroa behar da. **943 12 73 34**

- Harategian lan egiteko mutila behar da, euskalduna. **943742048**

ABISUAK

- Emuaranbide kaletik San Frantzisko (King-Kong) bitartean umearen txaleko marroi eta ileduna galdu genuen. **667739843**
- Leku Eder parkekin tren geltokira bidean kartera bat arukitu dugu. **660056219**
- Ikastola inguruan berokia galdu nuen. Beliza, forro grisa, txanoa dauka. **943742524**
- Pultsera bat galdu dut Maialen izenarekin. Madala inguruan. **943740065**
- Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut. Dona Karan markakoak, beltzak. **699 173635**
- Artzai txakur euskalduna oparitzen dut. 11 hilabetekoa, emea. **605771996 (Arantza)**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Julen** astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



▶ Zorionak **Nerea Iraola** abenduaren 10ean 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



▶ Zorionak **Iker** abenduaren 3an 7 urte beteko dituzulako. Anaien eta gurasoen partez. Oso ondo pasat!



▶ Zorionak **Nahia** Eskutxo horretan kabitzeko baino urte gehiaco bete dituzu, ezta? 6 urte! Aititxa, amama, Maite eta tio.



▶ Zorionak amama **Pura** azaroaren 29an urteak egin zenituelako. Uraitz, Garazi eta Naroaren partez.



▶ Zorionak **Julian Ayerdiri** hilaren 5ean urteak egingo dituelako. Etxekoen eta batez ere, biloba Garazi eta Iruneren partez.



▶ Zorionak **Hodei** azaroaren 29an 2 urte egin zenituelako. Gurasoen eta bereziki, Anerren partez.



▶ Zorionak **Nagore** gaur, urtetxo bat egin duzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



▶ Zorionak **Urtzil Zure** eguna Sasarrainen ondo pasatuko duzu! 12 belarri tirakada gurasoen eta anaia Andoniren partez.



▶ Zorionak **Ekain** atzo 3 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



▶ Aspalduko! Zer moduzkoa da urteak betetze hori? Susko errerak botatzeko modukoa! Kostaldekoen partez 5 muxutxu.



▶ Zorionak **Irigo Amendia** igandean 8 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, arreba Noraren partez.



▶ Zorionak gure etxeko txikiari!



▶ Zorionak **Jesus** eta **Esther** zuen urrezko ezteietan. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Naroa** eta **Ibon** zuen urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Naiaren partez.

▶ Zorionak ama, amama eta birramama **Maria** igandean urteak beteko dituzulako. Ondo pasa eta ondo ospatu zure familiakoekin.

ETXEBIZITZA, GARAJE EDO LOKALEN BAT DUZU SALDU EDO ALOKATZEKO?



Guk lagunduko dizugu!

Abenduaren 15ean
gehigarri berezia publikatuko dugu.

Informazioa: 943 74 37 04 (Amaia)



[OKINDEGIA]

- 3 igandea IBARRENEA
- 6 eguaztena BOLINTXO
- 8 barixakua DOÑA MERCEDES
- 10 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

- | | | |
|----|---------------------------------|----------------------------------|
| | GUARDIA 24 ORDUZ | KANPOKO FARMAZIAK |
| 1 | Zabaleta | IBAÑEZ |
| 2 | Etxeberria (Errosario) | Rekalde, 1 Soraluze. |
| 3 | Etxeberria (Errosario) | Tel: 943 75 16 38 |
| 4 | Ibañez | |
| 5 | Bidasolo | FERNANDEZ |
| 6 | Fernandez | Herriko enparantza 4, Garagarza. |
| 7 | Fernandez | Tel: 943 75 61 42 |
| 8 | Bidasolo | |
| 9 | Zabaleta | ZABALETA |
| | (* Goizez Etxeberria Errosario) | Kalebarren, 9 Soraluze. |
| 10 | Zabaleta | Tel: 943 75 13 84 |
| 11 | Etxeberria (Errosario) | |
| 12 | Ibañez | |
| 13 | Bidasolo | |
| 14 | Etxeberria (Santa Ana) | |
| 15 | Fernandez | |

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA (UZTAILA)

Astegunak: 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45
 Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00
 Igandeak eta jaiegunak: 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45
 Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR (UZTAILA)

Astegunak: 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
 Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
 Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
 PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
 Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
 EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
 Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
 EUSKOTREN: 902 543 210

[1 BARIXAKUA]

22:15 "HENRY BENGOA INVENTARIUM" IKUSKIZUNA
 Herriko Antzokian

[2 ZAPATUA]

19:00 - 21:00 EUSKADI RURAL SIGLO XXI- EZAGUTU ETA ESKERTU (Ikusgai abenduak 13 arte) Orduetgia: astelehenetik larunbatera 19:00-21:00 eta jai egunetan, 12:00-14:00. Kultur Etxeko Erakusketa gelan. Antolatzailea: Debemen.

[3 DOMEKIA]

16:30 "AVENTURAS Y DESVENTURAS DE PERICO DE LOS PALOTES" TXONTXONGILO EMANALDIA
 Herriko Antzokian. (Costa Ricako Cucaramacara txontxongilo taldearen eskutik).



I. URTEURRENA

2005eko abenduaren 9an hil zen
Felix Zulaika Arridaren
 oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, abenduak 10, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagarzako elizan. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

2005eko abenduaren 4an hil zen
Hector Andoni Alberdi Goizalez "Patsillo"ren
 oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 2, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



[9 ZAPATUA]

18:30 IRTEERA "FILOMENA MARTURANO" ANTZERKI LANA IKUSTERA JOATEKO
Bilboko Arriaga Antzokian.
Antolatzailea: Haizea E. T.
Informazio gehiago: Pitxintxun.

[11 ASTELEHENA]

12:30 XVI. NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETAREN AURKEZPEN EKITALDIA

16:00 XAKE PARTIDAK
(Xake partidak, abenduaren 11tik, 17ra jokatu dira).
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan.
Antolatzaileak: Udal Kirol Patronatua, Euskadiko Xake Federazioa eta Zubi Ondo Xake Elkarte.

09:00- 11:00 edo **18:00-20:00**

(16 urtetik gorakoentzat).
"IT KZGUNEA:INTERNETEO OINARRIZKO IKASTAROA DOHAINIK" (abenduaren 22arte).

14:00- 16:00 WEB ORRIAK SORTZEKO IKASTAROA
Abenduaren 18tik 24ra. Merkatarri, mikroenpresa eta autonomoentzat.
KZ Gunean (943 74 88 28.)

[12 MARTITZENA]

17:00 "ASTO BAT HIPODROMOAN" EMANALDIA

Udal Liburutegian.

Antolatzailea: Kutxa.

18:30-21:00 "MENDIAN NORK BERE BURUA BABESTEKO

TAILERRA" (abenduaren 14an ere).

Kultur Etxeko Sotoan.

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

[13 EGUAZTENA]

19:00 "EUSKARA HIZKUNTZA SEXISTA AL DA? HITZALDIA

Kultur Etxeko Sotoan.

Hizlaria: Amelia Barquin.

Antolatzailea: Biluzik Sexologia Z.

[14 EGUENA]

21:30 "EL VIENTO QUE AGITA LA CEBADA" FILMEA IKUSGAI

Herriko Antzokian.

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba,

Einbiou eta ezker abertzalea.

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El Laberinto del Fauno»

2, zapatua: 19:30-22:15

3, domekia: 19:30-22:15

4, astelehena: 21:30

«Camino a Guantanamo"(Z.K)

7, eguna: 21:30

«Yo soy la Juani»

9, zapatua: 19:30-22:15

10, domekia: 19:30-22:15

«Ant Bully»

10, domekia: 16:30

«La Dalia Negra »

6, eguaztana: 19:30-22:15

8, barixakua: 19:30-22:15

11, astelehena: 21:30

«El viento que agita la acebada"(Z.K.)

14, eguna: 21:30

EIBAR,

UNZAGA

«Natividad» (estreinua)

1, barixakua: 19:30-22:15

RIALTO

«Raton Police» (estreinua)

1, barixakua: 19:30-22:15

(ordutegi ohikoak mantenduko dira astean eta bi zine aretoetan)

BARRENez ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«El laberinto del fauno» (+18)



Zuzendaria: Guillermo del Toro.

Antzezleak: Sergi López, Maribel Verdú.

Ofelia izeneko 13 urteko neskatila, haurdun dagoen bere ama Carmenekin batera, herri txiki batera joaten da, Carmenen senar berriarekin bat egiteko. Gizonezko hau, frankistarren aldeko kapitain krudel bat da. Ofeliak ez du inongo estimurik sentitzen gizon honekiko. Vidalen misioa, errepublikarrekin amaitzea da. Honek, bere zentrua errota batean du. Testuinguru honetan, gau batez, Ofeliak hondatua dagoen labirinto batean, fauno bat aurkitzen du.

«El viento que agita la cebada» (Z.K.)

Zuzendaria: Ken Loach.

Antzezleak: Cillian Murphy, Pádraic Delaney.

Irlandako nekazari multzo batek, gerrilari talde bat osatzen du, independentziaren alde borroka egin eta "Black and Tans" izeneko britainiar ejerzitoari aurka egiteko, askatasuna erdiesteko asmoz. Damien izeneko protagonistak ere, bide bera hartuko du, mediku gisa zuen etorkizunari muzin eginez. Gudu odoltsua izango da eta britaniarrak ahul daudenean, bi aldeek tratatu bat sinatuko dute gerrari amaiera emateko. Berehala, ordea, gerra zibilak eztanda egingo du.

Atzera hegira



1982 . urteko erretratu zahar hau **Jose Mari Azpillagak** laga digu. Argazkian agertzen direnak **Jose Mari Azpillaga eta Rafael Agirregomezkorta** dira. Bi hauek herri kiroletako artekariak dira, hau da, apostuak kontrolatzen aritzen dira. Askotan ikusi izan ditugu San Migel edo San Pedroko idi-probetan, edota pilota partiduetan. Baina gure herriaz aparte, Euskal Herri osoan aritzen dira artekari lanak egiten. Duela urte mordo hasi ziren lan honetan, Jose Mari, batez ere, 50 urte inguru izango dira dagoeneko, eta Rafael zertxobait gutxiago. Gaurko erretratua Santa Klara auzoko bidean aterata dago. Artekari lanak egin ostean, asto eta guzti ikusten ditugu bi gizonak. Negu hotza izan zen urte hartakoa, kalea elurrez beteta ikusten dugu-eta! Hamaika bazkari eta afari eder egindakoak dira bi lagun hauek, eta ardo ederrak probatutakoak. Gaur egun, oraindik ere, punta-puntako artekariak dira.



ESKERTZA

2006ko azaroaren 22an hil zen
Sotera Mendizabal Etxabren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



disart
diseinu estudioa

**PROIEKTUAK
ALTZARIAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA**

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9:30 - 13:00 ETA 16:30 - 20:00
LARUNBATETAN
10:00 - 13:30**

Lurrotako automobil familiarretan

70 urtetako esperientzia

edukitzea ez da kasualitatea.
Chevrolet Captiva berria
Begirada guztien zentrua.
Europarentzat bereziki egina.
5 eta 7 eserlekurekin.
Diesel 150 CV.
Gasolina motorra
136 CV eta 230 CV.
Captiva Gama
23.330 €-tik hasita.



Diesel 150 CV 4x4 25730€-tik hasita

3 URTEKO garantia
edo **100000 Km.**

Chevrolet Captiva

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karabi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da.



CHEVROLET

Pozto gomendatua Puntutza eta Balar Uhartetan. Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDi LT 5 eskerlekurekin (BEZ, matxikala, zonga, garapioa eta Prover Plano Gasolina berri). Hiltxo: bukatu arto. Kontsumo mitza (l/100 Km): 7.4-11.5. CO₂ igorpena (g/Km): 197-264. 3 urteko berria edo 100000 Km, Berriaren legua (2010/2000) kalterik izan gabe.



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa:943 53 18 05

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Proiektu eta erreformak

Bigara Erreformak

San Frantzisko, 11-5
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria

☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com